


# AURKEZPENA

**TEKNIKARI** izeneko programa berria martxan jartzera doa Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Udalei zuzenduriko programa da eta euskara zerbitzuetarako aholkularitza integrala eta laguntza teknikoa eskainiko du.


Gipuzkoako udal eta Aldundiaren artean hizkuntza normalkuntzarako lan dinamika berri bat abiarazi nahi da lanerako printzipio batzuei jarraiki:

- Alde batetik, **ideia, pertsona** eta **baliabideen** arteko **triangelaketa** lortu nahi da.
- Bestetik, Aldundiak eskainiko duen zerbitzuaren **irudia edo pertzepzioa**, proiektu desberdinetako **edukiak** eta programan esku hartzen duten eragileen arteko **funtzio** banaketaren artean **sinkronia** bat ere lortu nahi da.

Aholkularitza zerbitzua eskaintzeko modua, **informazio, formazio eta ikerketarako sistema oso** batean oinarritua izango da.




# 1.- PRINTZIOIOAK




# 2.- FUNTZIOAK

## TEKNIKARI

programarekin  
hizkuntza  
normalkuntzarako  
bost funtzio landuko  
dira.




## 3.- PROIEKTUAK



## 4.- PROZESUAK

**TEKNIKARI** programaren barruan 7 egitasmo bultzatuko ditu Aldundiak. 5 egitasmotan udalekin zuzenean lan egingo da eta beste biak, Aldundiak bere aldetik garatuko dituenak izango dira. Udalekin batera martxan jarriko diren egitasmoen artean 3 espezifikoak kontsidera daitezke) udalen multzo jakin batekin garatuko direlako (1, 2 eta 3 egitasmoak) eta beste biak (4 eta 5 egitasmoak) transbertsalak eta zuzenean udal guztiei zuzentzen zaizkienak dira.



**TEKNIKARI** programa osoaren eta bere barnean dituen proiektu guztien metodologiako funtzionamendua, informazioaren inguruko lau prozesuetan oinarrituko da.



## 5.- UDALETARAKO PROIEKTU ESPEZIFIKOAK

### KIROLETAKO LAN-MAHAIA



1

- Gipuzkoako eskualde desberdinetako kirol eta euskara teknikariak biltzen dituen gunea da. Eskualde bakoitzeko gutxienez udal euskara eta kirol teknikari baten ordezkaritza lortu nahi da.
- "Kirola Euskaraz" egitasmoa Gipuzkoa osora zabaltzeko koordinazio lana egiten da.
- Dagoeneko martxan dagoen lan-mahaia da nahiz eta orain arteko lan dinamikarekiko zenbait aldaketa proposatuko diren.


### EBPN GIPUZKOAKO UDALERRIETAN GARATZEKO AHOLKULARITZA TEKNIKOA



2

- EBPN Gipuzkoan garatzen ari diren 24 udaletarako aholkularitza zerbitzua eskainiko da.
- Udaletatik jasotzen den aholkularitzarako eskariaren arabera antolatuko da zerbitzua eskaintzeko dinamika eta informazio trukerako sistema.
- Hilean behin egingo da galdera eta informazioaren bateratze lana eta jarraian aholkularitza zerbitzuaren eskaintza.

### HIZKUNTZA NORMALIZAZIORAKO ESPERIENTZIA BERRIEN LABORATEGIA



3

- Gipuzkoako 7 udalekin, hizkuntza normalkuntzarako garrantzitsuak diren gai eta alorretan esperientzia berriak martxan jartzeko lan egingo da.
- 8-9 hilabeteko epe batean modu iraunkorrean aukeratutako gaiaren inguruan diagnostiko, ikerketa, planifikazio eta exekuzio faseak aurrera eramango dira. Proiektuan parte hartuko duten udalek, esperientziak udalerrietan martxan jarri eta bere kudeaketa egiteko aukerak ikusi behar dituzte.
- Indarrean jarritako esperientzien informazioa gainerako udaletara ere zabalduko da.

### UDALETAKO EUSKARA TEKNIKARIENTZAKO PRESTAKUNTZA-SAIO PRESENTZIALAK



4

- Udaletako euskara zerbitzu guztietako teknikarientzat antolatutako prestakuntza saio presentzialak izango dira.
- Guztira 3 gai desberdin jorratuko dira ikasturteko, gai bakoitzeko 2 saio antolatuko dira eta saio bakoitzean 15 udalekin lan egingo da.
- Landu beharreko gaien aukeraketa, TEKNIKARI programaren barruan udalek egindako eskariaren arabera egingo da.

### UDAL EUSKARA TEKNIKARIEN INTRANET SAREA



5

- Informazio trukerako, aholkularitza zerbitzuaren erabilerarako eta egitasmo desberdinei dagozkien gestioetarako komunikazio tresna nagusia izango da.
- TEKNIKARI programako proiektu espezifikoetan zuzenean parte hartu ez arren, UETS intranetarekin udalen zeharkako partehartzea sustatu nahi da.

